



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Departamento de Educación, Universidades e Investigación

EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialak.

EE.OO.II. de la C.A.P.V.



**EUSKARAKO MAILA PROBA
GOI MAILA**

Atalak	Puntuazioa	Ehunekoa eta Maila	Iraupen gomendatua
A) Irakurriaren ulermena	25	<%35 (15 edo gutxiago): B1.2 / B2.1 %35-70 (16-31 punturekin): B2.2 %70 > (32 edo gehiago): C1	50'
B) Entzunaren ulermena	20		30'

Goi Mailetarako Sarrera Proba:

Oharrak:

- Sarrera edo Maila Probaren atal honek, norberak zuzendu ondoren, EAEko HEOetako Tarteko Mailako 2. mailan (B1.2), Goi Mailetan (B2.1, B2.2) edo C1 mailan matrikulatzeko aukera emango dio ikasle-gaiari. Autozuzenketa egiteko, erabili probaren bukaeran datorren erantzun-orria.
- Proba honetan bi atal edo zati dituzu: Irakurriaren Ulermena eta Entzunaren Ulermena.
- Sarrera probaren atal hau gutxi gorabehera eskolako *Goi Mailako (B2)* azterketarekin bat dator.
- Eta ikasle-gaiak emaitzen arabera hiru multzotan sailkatuko lirateke:
 1. Probaren %35 baino gutxiago lortuko lukeena *Tarteko Maila 2ko* edo *Goi Maila 1eko* taldeetara lihoake (B1.2 / B2.1).
 2. Probaren %35-%70 bitartean lortuko lukeena *Goi Maila 2ko* taldeetara joango litzateke (B2.2).
 3. Probaren %70 baino gehiago lortuko lukeenak *C1eko* taldeetan matrikulatu beharko luke.
- Idatzizko eta Ahozko Adierazpenen probei dagokienez, Eskola bakoitzak erabakiko du noiz eta nola egin.

**A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA**

1. Testua: Testua irakurri ahala, aukera ezazu erantzun egokia.

(4 puntu)

Gazte itxura

Hurtzarroan eta lehen gaztaroan izan ezik, guztiok ahalegintzen gara tematsuki dagokiguna baino itxura gazteagoa izaten, nor bere modura, nor bere errezeta eta sekretu hutsezinaz. Itxurak errealitatea aldatuko balu bezala.

1. Gaztetasunaren bila...

- a) gaztaroan ere aritzen gara.
- b) aritzeko era asko daude.
- c) jaiotzatik bertatik hasten gara.

Gazteago dirudizu, esaten diogu lausengatu nahi dugunari, egiari jaramonik egin gabe. *Nork esango luke ze adin duzun*, besteari edo antzeko esaldi borobil eta gehiegizkoaz. Horren bila ahalegintzen gara gau eta egun eta norbaitek antzeko zerbait esaten digunean, piztu egiten gara, harrotu. Badugu kontu goxoren bat lo hartu aurretik gogoratzeko. Atzo esan zidaten nire semearen andregai ematen nuela edo nire alabaren senargaia. Gaur esan didate ahizpak dirudigula, ez ama eta alaba...

2. Gazteago ematen dugula esaten digutenean...

- a) ikaragarri pozten gara, hori baita gure helburua.
- b) egiatan aritzen dira gehienetan.
- c) kortesiaz erantzuten diogu esan digunari.

Tamalez itxuran jartzen dugu gogo osoa, gaztetasuna hor bakarrik islatuko balitz bezala, beste adierazpenik gabe. Gaztea aurpegian zimurrik ez duena da, ile urdinik ez duena, argala eta liraina, mitxelinik gabea... Galde diezaiogun geure buruari zeintzuk diren gaztetasunaren seinale orokorrak, zimurrak eta itxura alde batera utzita. Bizipoza, gogoberotasuna, eskuzabaltasuna, alaitasuna, segurtasuna... "tasun" asko, ados, baina utz ditzagun "keriak" aparte, besterik ez bada ere une batez.

3. Zoritxarrez gaztetasuna...

- a) itxuran baino ez da islatzen.
- b) itxuran baino ez dela ageri uste du hainbatek.
- c) zimurrek eta ile urdinek eragozten dute.

Zimurrak kenduz lor daiteke, seguru asko, alaitasun izpi bat. Ilea tindatuz eskura dezakegu segurtasun tanta bat. Bada zerbait, askotxo agian.

Eta horrekin konformatzen gara, gainerako "tasun"ak alde batera utzita. Zimurrik gabe, ile urdinik gabe, mitxelin nabarmenik gabe. Baina, era berean, hainbeste "tasun"ik gabe. Baina nork ikusten ditu "tasun" horiek?

Arantza Urretabizkaia
(Bai Horixe, DV, 2008/05/26)

4. Zimurrak kenduz...

- a) osasuntsu egotea lortuko dugu.
- b) alaiago sentituko gara.
- c) barruko edertasuna ere azaleratuko dugu.



2. Testua: Testuko hutsuneak bete. Horretarako hutsune bakoitzerako 3 hitzetatik zuzena aukeratu eta markatu "X" batez erantzun-orriko taulan. 0. adibidea da: beldurgarriak (10 puntu)

Plastikozko zorrorik gabe bizitzeko prest?

Zelaietan, hondartzetan, itsaso-hondoan... bukatzen dute dendetan ematen dizkiguten plastikozko poltsek. Eta bakarrik noraezean hondatuta, gelditzen diren poltsa horiek kalte handia egiten diote gure ingurumenari. Datuak 0 dira: biztanle bakoitzak 200 poltsa inguru erabiltzen ditu urtean eta poltsa bakoitzak 100 urte behar ditu deskonposatzeko.

70eko hamarkadan asmatu zirenetik, ezinbesteko bilakatu dira gure eguneroko bizitzan. Baina 5 horiek gabe bizitzen ikasi beharko dugu laster. Gobernuak eta saltokiak plastikozko poltsen 6 bila dabilta eta neurri ezberdinak hartzen hasi dira. Eroskik, adibidez, poltsa berrerabilgarria jarri du abian ohiko poltsa kopurua murrizteko. Baina, konponbidea gu guztion esku dago. Eta zuk, zer diozu?

Minuturo milioi bat plastikozko poltsa fabrikatzen da mundu osoan. 7, kontua ez da txantxetan hartzeko modukoa. Ikaragarria da zenbait herrialdetan, garatuak gehienak, egiten den neurriz kanpoko erabilera. Merkatura joan eta fruta plastikozko poltsetan sartzen dugu, 8 ale bakarra hartu. Noski, berez lehendik plastikozko zorroren batean enbalatua ez badator. Haragia plastikozko bandejetan, esnea plastikozko botilatan, madalenak plastikozko zorrotan... aurkituko dugu. Gero, berriz ere, etxera eramateko 9, dena plastikozko poltsetan sartuko dugu. Egizu proba eta etxera iristerakoan konta ezazu zenbat plastikozko zorro, poltsa, bandeja, bilgarri edo dena delako eraman dituzun.

0.	5.	6.	7.	8.	9.
a) beldurrak	a) demagun	a) ordezko	a) Horretarako	a) nahiz eta	a) garaian
b) beldurtiak	b) dirudienez	b) ordainetan	b) Bestela	b) eta, noski,	b) otorduan
c) beldurgarriak	c) baliteke	c) ordez	c) Beraz	c) badaezpada	c) astian

Baina, dirudienez, gure eguneroko bizitzan hain ohiko diren tresna hauek 10 daude. Izan ere, hainbat herrialdetan neurri zorrotzak hartzen hasi baitira poltsa horien erabileraren aurka egiteko. Txinako gobernuak, esate baterako, ohiko plastikozko poltsa (0,025 milimetroko lodiera duena) debekatzea erabaki du. Neurria ekainetik aurrera jarriko da 11, eta handik aurrera debekatuta egongo da poltsa mota hori fabrikatzea eta doan banatzea.

Hala ere, ez dugu hain urruti 12; plastikozko auzia konpontzea edozein lekutan da premiazko. Estatu espainiarreko biztanle bakoitzak, adibidez, 200 poltsa erabiltzen ditu urtean. Orotara. 10.000 tona joaten dira zakarrontzira; beste 10.000, berriz, birziklatze-instalazioetara iristen dira. Horrek zera esan nahi du: poltsa guztietako % 10 besterik ez direla birziklatzen. Kopuru beldurgarri horien aurrean, ingurumen Ministerioak 13 erabaki du eta zera iragarri du: 2010 urterako erabilera 14 poltsak debekatuta egongo direla.

Oihana Prado (Habe aldizkaria)

10.	11.	12.	13.	14.
a) desagertzeaz	a) bere onenean	a) joaterik	a) esku hartzea	a) gabeko
b) desagertzeaz	b) bertan behera	b) joan beharrik	b) ados egotea	b) bakarreko
c) desagertzean	c) indarrean	c) joanik	c) okerrera egitea	c) ez-ohiko



3. Testua: Irakurri hurrengo testua eta testuko hutsuneak bete. Horretarako, beheko koadroan erantzun zuzena aukeratu eta ipini beheko taulatxoko zenbakiaren ondoan. 0. adibidea da: i) handian (5 puntu)

Apaiz erretzailearena

Aspaldi **0** , artean apaizak eta erretzaileak **15** bizi ziren garaian, ba omen zen apaiz erretzaile bat. Erretzaile **16** ez ezik apaiz zintzoa ere bazenez, kontzientzia jaten ari zitzaion kezka azaldu zion behin bere nagusietako bati, honako galdera hau egiten ziola:

-Errezatzen ari naizen bitartean erretzea ongi dagoen, horixe jakin nahi nuke.

Nagusiak ezetz erantzun zion, ez zela **17** errezatzea bezalako jardun zerutiar eta garbi bat tabakoaren kez zikintzea.

Errezatzen ari zenean erre gabe egin zuen, beraz, gure apaizak. Handik denbora batera, etsipena hartu ezin eta beste nagusi batengana **18** zuen gure apaizak, eta hari ere galdera bera egin zion, itxuraz behintzat:

-Errezatzen ari naizen bitartean erretzea ongi ote dagoen, horixe jakin nahi nuke.

Bere **19** , bigarren nagusi horrek baietz erantzun zion, edozein egoera eta tenore dela on errezatzeko, gauzarik zikinena ere garbitzen duela otoitzak.

Joxerra Garzia (Jendaurrean hizlari)

a) osasunerako	b) jo	c) ohia	d) agerian	e) bidezkoa
f) azalpean	g) amorratua	h) harridurarako	i) handian	

Erantzunak:

0.	15.	16.	17.	18.	19.
i)					



4. Testua: Irakurri hurrengo testua eta testuko hutsuneak bete. Horretarako, beheko koadroan erantzun zuzena aukeratu eta ipini beheko taulatxoko zenbakiaren ondoan. 0. adibidea da: j) turruna (6 puntu)

Antxoatan

Kostaldekoko arrantzale herrietan, elizako kanpai-hotsa baino maiteago izan dugu beti **0**. Kofradiatik ateratzen dena. Kaleak **20** dituen. Herritarroi arrantza izan dela iragartzen diguna. Turrinak behin jotzen duenean, hegaluzea datorrela esan nahi du, bitan jotzen duenean txitxarroa edo berdela, eta hirutan antxoa da **21** dena. Aspaldian, ordea, gero eta gutxiago entzuten dugu sirena-hots estimatua. Batez ere, hiru aldiz jarraian.

Datorren zapatuan, hilak 17, Antxoa eguna ospatuko da Ondarroan. 2005. urtean hasi zen lehen aldiz ospakizuna, orduan Antxoa eguna lelo hutsa zeukan jaiak. Hurrengo urtean, 2006an, egoeraren gorria salatzeke, Antxoa SOS leloa zeukaten ehunka kamiseta eta zapi gorri banatu zituzten. 2007an, ordea, ez zen Antxoa egunik ospatzeko **22** bildu. Ez zen giro. Aurten, berriz **23** zaio jaiari. Eta 2008ko kamiseta eta zapiak, beltzak izango dira. Beltz-beltzak. Ez da zaila zergatia igartzen.

Hala ere, zapatu honetan 4.500 pintxo prestatuko dituzte antolatzaileek. Antxoaren faltan, momatxa, perlita eta sardinarekin. Kontserben **24** izango da. Arrain paella lehiaketa izango da... Arrantzale, portu eta kontserbetako langile eta itsasotik bizi izan diren hainbat pertsona bilduko da bertan. Eta batek baino gehiagok oroituko du hamar urte mokorekin kontserbetan lanean hasi, edo hamalauarekin itsasontziratutako zirela. Ez zuten orduan usteko gaur, kamiseta beltza **25** antxoaren hiletaren zain izango zirenik.

Leire Bilbao (Berria)

a) ekingo	b) ukatzen	c) soinean	d) eskarmenturik	e) salmenta
f) betetzen	g) erantztean	h) porturatzen	i) adorerik	j) turruna

Erantzunak:

0.	20.	21.	22.	23.	24.	25.
j)						



B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA

1. Entzungaia:  **Asisko hiritik herrixkara joan da (Asisko Urmeneta).** (ikasbil, 382159).
Grabazioa birritan entzungo duzu. Aukeratu erantzun egokia. (10 puntu)

1. Poza eragin die herritarrei Asisko Urmeneta herri txikira joateak, ...

- a) hartara, marrazkilari eta artista ezaguna izango baitute euren artean.
- b) azken urteetako galera demografikoa eten eta norbait animatu delako herrian kokatzen.
- c) bertako 70 lagun eskasek (oiloak barne), ongi eskertu dutelako laguntza teknologikoa.

2. Asisko hiritarra ez da herrian aspertzen ...

- a) eta batzuetan estresak joa ere bada, zeregin handia duelako etxe barnean eta bere marrazkilari lanean.
- b) herri txiki bateko bizilagunen patxadak eta erritmo lasaiak ezinbestean mugiarazten duelako.
- c) herriak bere amatxi baztandarra gogorarazten diolako eta han beti zelako eskuin-ezker zer egin.

3. Asisko oso kontrolatua dago herrian, ...

- a) eta zaintza beste eskualde batzuetakoa baino nabarmenagoa eta disimulurik gabea da.
- b) kontrola gainera disimulurik gabea da eta hala Asiskok badaki nor dabilen bere atzetik hori saihesteko.
- c) baina, jendearen galderei nahi duena baino ez die erantzuten Asiskok.

4. Herrian zerbait faltan sumatzen duen galdetuta ...

- a) ezetz dio; bere burua beste era batera antolatu duelako, erosketak eta tratuak, adibidez, auzokoekin bertan egiten dituela.
- b) berogailua aipatzen du, neguan sekulako hotza egiten du bertan eta.
- c) ezetz dio, autoz noranahi mugitu daitekeela erraz, eta antolaketa modu berri baten kontua baino ez dela.


5. Herrixken alde onei buruz galdetuta, ...

- a) giltza beharrik ez dagoela dio, eta gainera etxe aurrean aparka daitekeela.
- b) autoak etxe aurrean bota ahal direla dio, giltzak gainean utzita, eta edonoren autoa hartuta mugitu ahal direla.
- c) denek elkar oso ondo ezagutzen dutenez gero, lapurretak oso urriak direla dio.

Erantzunak:

1.	2.	3.	4.	5.



2. Entzungaia:  **Barizeak.** (ikasbil, 378354). Grabazioa birritan entzungo duzu. Aukeratu erantzun egokia. (10 puntu)

1. A. Letamendiaren ustez, barizeak sortzen dira...

- a) hanketako zainak bereziak direlako eta odola bihotzera bideratzen duten balbulak loditzen direlako.
- b) zainak loditzen direlako eta ez diotelako odolari behar den abiadura mugitzen uzten.
- c) gorputzak flebitisaren arriskua ez izateko hanketako balbulak odola atzeraka bideratzen dutenean.

2. Barizeak nork izaten dituen galdetuta...

- a) emakume eta gizonek berdintsu izaten dituzte, nahiz kontsultan 10etik 9 emakumeak izan.
- b) 10etik 9tan emakumeetan sortzen da lehenik arazoa, nahiz gizonezko batzuek ere sufritu.
- c) % 35 eta 65 dira han eman diren datuak, baina emakumezkoak estetika arazoengatik erdizka dira.

3. Arriskutsua da barizeak lehertzea...

- a) lotan harrapatuz gero, odolustuta oharkabean hil zaitezkeelako.
- b) zainen azala oso findu eta lehortuta, odola zahatotik ardoa bezala ateratzen hasten bada bakarrik.
- c) soilik, zainak potolotu, belztu, eskema bihurtu, eta kolperen bat hartuta edo azkazalekin urratuz gero.

4. Barizei dagokienean Letamendiak dio...

- a) lehen neke eta kalanbreak hastean medikazio arin batekin senda litezkeela.
- b) ez duela merezi estetika hutsagatik kentzen hastea, ebakuntza beti delako arriskutsu.
- c) ez dagoela sendabiderik eta gehienera kendu egin litezkeela.

5. Barizeek eragindako kalteak arintzeko,...

- a) ahal den gutxien sufritzeko eta zainetako azala ez fintzeko, ebakuntza da onena.
- b) ahalik eta denbora gutxien egon zutik edo eserita geldi; ibili, igeri egin eta galtzerdiak erabili.
- c) oin azpian esponja bat jartzea komeni da, ibiltzean masajea hartzeko, eta odola mugiarazteko.

Erantzunak:

6.	7.	8.	9.	10.



**EUSKARAKO MAILA PROBA
GOI MAILA**

IZEN-ABIZENAK:.....
 NA/D.N.I.:.....
 TELEFONO(A):.....

ERANTZUN-ORRIA

A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA. (25 PUNTU)

1. Testua: Gazte itxura. (4 puntu)

1.	2.	3.	4.

2. Testua: Plastikozko zorrerik gabe bizitzeko prest? (10 puntu)

0.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.
c)										

3. Testua: Apaiz erretzailearena. (5 puntu)

0.	15.	16.	17.	18.	19.
i)					

4. Testua: Antxoatan. (6 puntu)

0.	20.	21.	22.	23.	24.	25.
j)						

B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA. (20 PUNTU)

1. Entzungaia: Asisko hiritik herrixkara joan da (Asisko Urmeneta) . (10puntu)

1.	2.	3.	4.	5.

2. Entzungaia: Barizeak. (10 puntu)

6.	7.	8.	9.	10.



**EUSKARAKO MAILA PROBA
GOI MAILA**

<35 (15 edo gutxiago): B1.2 / B2.1
%35-70 (16-31 punturekin): B2.2
%70 > (32 edo gehiago): C1

ERANTZUN ZUZENAK

A. ATALA: IRAKURRIAREN ULERMENA. (25 PUNTU)

5. Testua: Gazte itxura. (4 puntu)

1.	2.	3.	4.
b	a	b	b

6. Testua: Plastikozko zorrerik gabe bizitzeko prest? (10 puntu)

0.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.
c)	b	a	c	a	a	a	c	b	a	b

7. Testua: Apaiz erretzailearena. (5 puntu)

0.	15.	16.	17.	18.	19.
i)	d	g	e	b	h

8. Testua: Antxoatan. (6 puntu)

0.	20.	21.	22.	23.	24.	25.
j)	f	h	i	a	e	c

B. ATALA: ENTZUNAREN ULERMENA. (20 PUNTU)

3. Entzungaia: Asisko hiritik herrixkara joan da (Asisko Urmeneta) . (10puntu)

1.	2.	3.	4.	5.
b	b	c	c	a

4. Entzungaia: Barizeak. (10 puntu)

6.	7.	8.	9.	10.
b	a	a	c	b





MAILA PROBA: GOI MAILA

C. IDATZIZKO ADIERAZPENA

- Kontatu **idazlan sendo batean** (ez monosilaboekin ...):

1. ZURE BIOGRAFIA BAT:

- Nor zaren.
- Non eta noiz jaioa.
- Non bizi zaren.
- Zer ikasketa egin dituzun orain arte. Zergatik.
- Zer lan edo ikasketa egiten duzun orain. Zergatik.
- Zer asmo duzun etorkizunerako.

2. ZER IKASI DUZUN ORAIN ARTE EUSKARAZ:

- Zer beste kurtso egin dituzun orain arte euskara ikasteko, eskolan eta eskolaz kanpo. Zehaztu:
 - Noiz, non, zein mailatan?
 - Ea txikitan bazenekien euskaraz zer edo zer, edo zure familiak badakien.
 - Ea orain telebista ikustean edo irratia entzutean dena ulertzen duzun edo nola, zenbat. Ohiturarik?
 - Ea zenbat hitz egiten duzun zuk euskaraz. Norekin? Noiz? Nola sentitzen zaren.
 - Ea zer irakurtzeko eta ulertzeko ohitura duzun euskaraz (egunkaria, aldizkariak,...).
 - Ea idazten nola moldatzen zaren, ze ohitura duzun.
 - Ea gramatika asko dakizun. Zenbat? Zer? Zer interesatuko litzaizukeen ikastea gramatikan.
 - Pasa den kurtsoan ikasi zenuen euskara nonbait?
 - Noiz, non, zein maila? Bukatu zenuen?
 - Ea inoiz aurkeztu zaren euskarako azterketetara. Ea asmorik baduzun aurten.
 - Zer landu nahi zenukeen batez ere aurten: mintzamena, entzuna ulertzea, irakurtzea, idaztea, testak, ariketak, gramatika,...

3. ZER EGIN NAHI DUZUN AURTEN:

- Pentsatuz 12 maila edo markatu litezkeela euskara ikasteko, zu non egongo zinateke, zure ustez, gutxi gorabehera, edo non hasi nahi zenuke aurten ikasten? Markatu mesedez ondoko koadrotxo bat edo bi **X** (gurutze) batekin (azpian dituzu gutxi gorabeherako korrespondentziak):

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
-----			-----			-----			-----		-----	
≈A1			≈A2			≈B1			≈B2		≈C1 (EGA)	
Osakidetza eta IVAP-HAEEko ≈:							≈1HE		≈2HE		≈3HE (EGA)	
Euskaltegietako ≈:							≈1. maila		≈2. maila		≈3. maila (EGA)	

IDAZLANA (Zure izena, ... -hemen eta orriaren atzealdean-: